

**EUSKO JAURLARITZAREN INFORMATIKA ELKARTEAREN 40. URTEURRENA
40 ANIVERSARIO SOCIEDAD INFORMÁTICA DEL GOBIERNO VASCO**

2022-11-29 Vitoria-Gasteiz 29-11-2022

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Eusko Legebiltzar buru andrea, herri agintari eta herri ordezkariok, EJIE-ren zuzendari eta kideok, sailburua, sailburuorde, Saila osatzen duzuen ordezkariok eta etorritako beste sailburu kideok ere, jaun andreok arratsalde on!

Sailburuak EJIE sozietate publikoa 1982an eratu zuen dekretua irakurri digu. Dekretu horrek teknologiaren eta datu-prozesuen bidez administrazioa modernizatzea zuen xedea. Gaurkotasan osoko xedea jarraitzen du izaten 40 urte geroago. Une hartan, talde aitzindari batek aurrerapausoa ematea erabaki zuen. Beraien jarrera berritzailea izan zen eta ikuspegia oso aurreratua garai haietarako.

Hori da ere urteurren honetan EJIE-k erakusten duen jarrera eta ikuspegia. Teknologia, Berrikuntza eta Digitalizazioa dira EJIE-eren lan ardatzak.

Eskerrik asko EJIE martxan jarri eta aurrera eraman duzuen arduradun eta kide guztioi. Zorionak lau hamarkada hauetan eraldaketa digitala errazteko eta ezartzeko egin duzuen ekarpenagatik.

“La modernización de la administración a través de la tecnología y el proceso de datos” estaba presente en el Decreto de creación de EJIE y es un objetivo vigente hoy en día.

Hoy reconocemos a quienes pusieron en marcha EJIE y a todas las personas que seguís impulsando la digitalización de la administración y la sociedad vasca.

El Plan Estratégico de Gobernanza, Innovación Pública y Gobierno digital, ARDATZ 2030, orienta con claridad este objetivo: “Se demandan servicios más personalizados, más fáciles de usar y más adaptados a las necesidades particulares.”

La semana pasada, EJIE ha recogido un nuevo reconocimiento por el proyecto “NIK patrika digitala” en el Congreso Librecon. Un galardón otorgado como “mejor proyecto basado en tecnologías open con mayor impacto en la ciudadanía”. Zorionak!

Administrazioaren helburua pertsonen bizitza hobetzea da. Helburu horretan teknologiak funtsezko zeregina du.

Erakunde publikoetan konfiantza emango duten zerbitzu digitalak behar ditugu. Gardentasuna eta eraginkortasuna hobetzen dituzten zerbitzuak; segurtasuna eta konfiantza ematen dutenak.

Gobernu digitala posible da. Horretarako, ekosistema digitaleko eragile guztiak inplikatu behar dira, eta aliantza publiko-pribatuak indartu. Bide horretan, Euskadi posizio aurreratuan dago bere ekonomia eta gizartea digitalizatzeko esparruan.

Horrela erakusten du Europako Batzordeak erabiltzen duen Ekonomia eta Gizarte Digitalen Europako Indizeak (DESI). Indize horren azken txostenaren arabera, Euskadi Europako batez bestekoa baino 10 puntu gorago kokatzen da. Ez gara konformatzen, herritarrei ematen diegun zerbitzua etengabe hobetzen jarraitu behar dugu.

Debemos seguir trabajando con el espíritu de mejora continua y servicio a la ciudadanía. Un primer reto es facilitar la formación e implicación de todo el personal público. La administración debe avanzar en un cambio cultural digital interno. No podemos perder a nadie en este proceso y EJIE tiene un rol protagonista para sumar voluntades, facilitar procesos y acelerar la gestión del cambio.

Un segundo reto es reducir la brecha digital. Este camino se debe recorrer sin discriminar a ninguna persona por su capacidad de relación con la tecnología. Debemos acompañar para reducir la brecha digital, garantizando el acceso a todos los servicios públicos. Usabilidad y Experiencia de Usuario deben estar siempre en nuestra agenda digital.

Un tercer reto es fomentar la participación ciudadana. La tecnología y la digitalización son un motor de participación. Esta es una vía para recuperar la cercanía y complicidad de la ciudadanía con las instituciones públicas. Debemos promover un modelo de escucha activa, que permita conocer y comprender mejor las demandas y necesidades de las personas.

Prozesu konplexu honetan aurrera egiten jarraitu behar dugu, kalitate eta kudeaketa aurreratuko ereduaren bidez.

Eraldaketa digitalaren arrakasta erakunde erantzukizuna dugun pertsona guztien inplikazioaren mende dago. Elkarrekin lan eginez, Gobernu digitala posible egingo dugu.

Gaurko ekitaldi honetan egindako bidea aitortzen dugu eta indar berriak hartzen ditugu. Azken finean, lankidetzeta-bideari ekin behar diogu, EJIE-rekin batera, aurrez aurre ditugun erronka guztiak gainditzeko jarraitzeko.

El proceso de Gobierno Digital lleva asociados cambios culturales en nuestra forma de gobernar. Estamos en el buen camino. Un Gobierno Digital es posible.

Euskadi se encuentra en una posición avanzada en la digitalización de su economía y sociedad en el marco europeo. Así, el Índice Europeo de Economía y Sociedad Digitales, DESI, nos sitúa 10 puntos por encima de la media europea en su último Informe 2020.

Comparto la ambición de seguir avanzando en la digitalización con todo el equipo de EJIE. Os animo a seguir soñando. Soñad como aquel equipo pionero que puso en marcha EJIE. Seguid siendo inconformistas, demostrando cercanía; y, también, paciencia. Mantened siempre la ilusión y el tesón para seguir avanzando en la digitalización de la administración y de la sociedad vasca.

Eskerrik asko EJIE abian jarri zutenei eta euskal administrazioaren eta gizartearen digitalizazioa bultzatzen jarraitu duzuen pertsona guztioi.

Eskerrik asko EJIE, zorionak eta urte askotarako!